

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### HARANeko UDALA

#### **Epea irekitzea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak ordaintzeko**

2019ko irailaren 20tik azaroaren 20ra bitarteko egun balioudunetan (egun biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa ez badute banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute zerga, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz irailaren 20tik aurrera.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen zergabilketako arautegi orokorraren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Harana, 2019ko abuztuaren 30a

*Alkatea*

*ROSA MARÍA IBARRONDO MANZANOS*